



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
23/03/2017

La Hacienda de Bizkaia afloró 461,6 millones de euros de fraude en 2016

Como todos los años, el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha comparecido a petición propia en las Juntas Generales de Bizkaia para informar de las actuaciones más relevantes contra el fraude fiscal. En 2016, la “pelea” del personal de Hacienda contra el fraude en Bizkaia se ha saldado con el afloramiento de 461,6 millones de euros.

El personal de la Hacienda foral ha desarrollado contra la evasión de impuestos un total de 345.053 acciones que han logrado regularizar 205,7 millones en el Impuesto de Sociedades, 105,5 en IVA, 45,2 en IRPF, 42,1 millones en retenciones e ingresos a cuenta, y 9,8 millones en Transmisiones y otros impuestos. Esta es la "fotografía general" del trabajo en los tres ámbitos de actuación que abarca la lucha contra el fraude fiscal: "la información, la prevención y la regularización".

En el ejercicio 2016, la mayoría de las intervenciones se han desarrollado en IRPF y Patrimonio. Han sido 237.862 actuaciones que corresponden a liquidaciones en estos dos impuestos. En IVA se han realizado 91.582 actuaciones y el resto se han repartido entre los de Sociedades, Transmisiones y otros impuestos, así como en las retenciones y pagos a cuenta.

Entre todas ellas, Iruarrizaga ha destacado las “29 actuaciones” que han derivado en la detección de presuntos delitos remitidos a la Fiscalía, por un valor de 53,1 millones de euros. De ellos, 22 casos están relacionados con el pago del IVA, por importe de 27,6 millones, y tres estarían con el Impuesto de Sociedades, por 25,5 millones de euros. Asimismo se han puesto en conocimiento del ministerio fiscal otros 4 presuntos delitos por el alzamiento de bienes o falsedad documental.

En respuesta a los grupos de la oposición, Iruarrizaga ha vuelto a ofrecer el dato del “70%”, tal y como establecen otras agencias tributarias, como referencia del dinero que llega a entrar en las cuentas de la Hacienda foral. El diputado no ha entrado a valorar si lo aflorado viene a ser “la mitad” de la economía sumergida del territorio tal y como le han recordado algunos grupos en relación al informe que tres catedráticos universitarios presentaron en Juntas Generales hace unas semanas. “La realidad es ésta. Es lo que hay. No voy a comentar estimaciones que se han hecho desde el plano teórico”, ha respondido Iruarrizaga quien ha dejado claro no cuestionar los estudios, pero ha advertido de que “Hacienda necesita nombres y apellidos para actuar”.

La intervención de Iruarrizaga ha tenido su contrapunto en los grupos junteros de Podemos Bizkaia y EH Bildu. El grupo morado ha señalado que los datos aflorados suponen un “estancamiento” en relación a otros ejercicios, “446 millones en 2015, 523 millones en 2014 y 467 millones en 2013”, según la apoderada Asun Merinero, quien se ha mostrada “preocupada” por que el año pasado se regularizara una cifra similar - 461,6 millones - “a pesar de que se implementan nuevas acciones” de control del fraude.

Por su parte, EH Bildu ha subrayado la disminución de actuaciones de inspección en los impuestos de Sociedades e IVA, precisamente en los tributos con mayor fraude a tenor del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

volumen de dinero regularizado. Iruarrizaga ha querido quitar trascendencia a este hecho que, según él, “no guarda correlación”. Lo recaudado “no está en relación al número de actuaciones puestas en marcha”. “Quizás las de 2016 fueron más complejas”, ha dicho.

Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- han destacado el esfuerzo “continuo” de la Hacienda foral que introduce procedimientos “innovadores”. El jeltzale Unai Lerma ha apuntado a nuevos cambios normativos y a la firma de un mayor número de convenios con entidades diversas para atajar el fraude. Para el apoderado del PNV, las cifras de fraude aflorado no decaen “gracias a las mejoras permanentes”, incluso crecen “ligeramente” respecto al 2015. El socialista Ekain Rico ha cifrado este aumento en “15 millones”, destacando a su vez que hubo “16 casos más” entregados a la Fiscalía por presunto delito fiscal. En esta lucha contra el fraude Rico ha situado la puesta en marcha con el Gobierno vasco de la “plataforma de interoperatividad” para el intercambio de información.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

NOTA DE PRENSA
2017/03/23

Bizkaiak iruzurreko 461,6 milioi euro azaleratu ebazan 2016an

Foru Ogasuneko beharginek 345.053 egintza gauzatu ditue zerga iruzurraren kontra. Egintza horreei esker 205,7 milioi euro erregularizau dira Soziedadeen Zergan, 105,5 milioi BEZean, 45,2 PFEZan, 42,1 milioi konturako atxikipenetan eta diru-sarreretan eta 9,8 milioi Transmisinoetan eta bestelako zergetan. Hori da iruzur fiskalaren kontrako burrukak hartzen dituan hiru jarduketa eremuen “argazki orokorra”. Hiru eremu horreek “informazinoa, prebentzinoa eta erregularizazinoa” dira.

2016ko ekitaldian esku-hartze gehienak IRPFan eta Ondarean gauzatu dira. Zerga bi horreen likidazinoei jagokezan 237.862 jarduketa egin dira. BEZ zergan 91.582 jarduketa gauzatu dira, eta gainerakoak Soziedadeen Zergan, Transmisinoetan eta beste zerga batzuetan eta konturako atxikipenetan eta diru-sarreretan egin dira.

Horreen guztien artean, Fiskaltzara bialdu diran ustezko delituak hautemotea ekarri daben eta 53,1 milioi euroko balioa daukien “29 jarduketak” azpimarratu ditu Iruarriazagak. Horreetatik, 22 kasu BEZaren ordainketeagaz dagoz erlazioautak, 27,6 milioiko balioagaz, eta hiru Soziedadeen Zergeagaz egongo litzatekez, 25,5 milioi euroko balioagaz. Gainera, ondasunen altxamenduagaz edo faltsotasun dokumentalagaz erlazioautako ustezko beste 4 delitu be ministerio fiskalari jakinarazo jakoz.

Oposizinoko taldeei erantzunez, Iruarriazagak “%70eko” datua emon dau barriro, beste zerga agentzia batzuek ezarten daben moduan, Foru Ogasuneko kontuetan sartzen dan diruaren erreferentzia moduan. Diputatuak ez dau balorau azaleratu dana lurraldeko ezkutuko ekonomiaren “erdia” izango ete dan ala ez, talde batzuek gogorarazo deusien moduan, Unibersidadeko hiru katedradunek orain aste batzuk Batzar Nagusietan aurkeztu eben txostena dala eta. “Errealidadea hori da. Hori da dagona. Ez dodaz plano teorikotik egin diran estimazinoak komentauko”, erantzun dau Iruarriazagak, eta garbi itzi dau ez dituala azterlanak zalantzan jarten, baina jakinarazo dau, baita be, “Ogasunak izenak eta abizenak behar dituala jardun ahal izateko”.

Iruarriazagaren esku-hartzeak bere kontrapuntua izan dau Batzarretako Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeetan. Talde moreak adierazo dauenez, azaleratu diran datuek “geldialdia” erakusten dabe beste ekitaldi batzuekaz alderatuta: “446 milioi 2015ean, 523 milioi 2014an eta 467 milioi 2013an”, Asun Merinero batzordekideak adierazo dauenez. Podemoseko kidea “arduratuta” agertu da, igaz antzeko kopurua erregularizau zalako -461,6 milioi- iruzurra kontroletako “egintza gehiago ezarten diran arren”.

EH Bilduk, bere aldetik, Soziedadeen zergan eta BEZean egin diran ikuskapen jarduketan jatsierea azpimarratu dau, horreek diran arren iruzur gehien sortzen daben zergak, erregularizau dan diru kopurua ikusita. Iruarriazagak ez deutso garrantzi larregirik emon gura izan horri, bere esanetan “ez daukalako ezelango zerikusirik”. Jasotakoak “ez dauka zerikusirik martxan jarritako jarduketa kopuruagaz”. “Beharbada, 2016ko jarduketak konplexuagoak izan dira”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeek –EAJ-PNV eta PSE-EE– Foru Ogasunak “eten barik” egiten dauen esfortzua azpimarratu dabe, prozedura “barritzaileak” sartuz. Unai Lerma jeltzaleak arauzko aldaketak eta iruzurrari aurre egin ahal izateko hainbat erakundegaz hitzarmen gehiago sinatu izana azpimarratu ditu. EAJ-PNVko batzordekidearen eretxiz, azaleratutako iruzurraren zifrek ez dabe behera egiten “eten barik sartzen diralako hobekuntzak”, eta, gainera, “zer edo zer” gora egin dabe 2015. urteagaz alderatuta. Ekain Ricok esan dauenez, igoera hori “15 milioikoa” da, eta ustezko delitu fiskala dala eta Fiskaltzan “16 kasu gehiago” aurkeztu dirala azpimarratu dau. Iruzurraren kontrako burruka horretan sartu dau Ricok Eusko Jaurlaritzagaz informazinoa trukatzeko martxan jarri dan “interoperatibidadearen plataformea”.